



**Arnasguneak hizkuntza
gutxituen biziberritzean.**
Nazioarteko konferentzia

**Territories of higher speaker
density in minoritised
language communities.**
International Conference

2025eko urriaren 16 eta 17a
Azpeitia, Euskal Herria



CC-BY-SA 4.0 Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa
CC-BY-SA 4.0 Attribution-ShareAlike 4.0 International
<https://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/>

Continuuma eta kodependentzia:
gales-hiztunen dentsitate altuko,
ertaineko eta baxuko
komunitateen dinamika elkarlotua
79-100. or.

Continuum and Co-dependence:
the inter-related dynamics of
higher, mid and lower-density
Welsh-speaking communities
227-247. or.

Elin Haf Gruffydd Jones (University
of Wales Trinity Saint David - ELEN)

<https://dx.doi.org/10.26876/Arnasguneak.2026.04>

Sustatzaileak / Promoters:



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**
Euskara biziberritzeko
ikergunea



**UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA**



5. Continuuma eta kodependentzia: gales-hiztunen dentsitate altuko, ertaineko eta baxuko komunitateen dinamika elkarlotua

Elin Haf Gruffydd Jones (University of Wales Trinity Saint David – ELEN)

Laburpena: Artikulu honek Galesen alor honetako politiketan berriki izandako garapenei buruz hausnartzen du, eta bereziki Galesez Mintzatzen diren Komunitateen Batzordearen lana aztertzen du. Prosiect BRO: gaur egungo galesez mintzatzen diren komunitateen inkesta soziolinguistikoko orokorrak¹ Batzordearen lehenengo eta bigarren faseei (2022-2024, 2024-2026) egindako ekarpenean ere oinarritzen da.

Galesaren eta euskararen testuinguruak alderatzen ditu, funtsezko politika-alorretan egindako aurrerapenen arteko desberdintasunak azpimarratuz, besteak beste hiztun-kopurua handitzean, hezkuntza-sistemaren garapenean eta hizkuntzaren erabilera sozialaren analisian. Bi hizkuntzek erronka handiak dituzte dentsitate altuko eremuen iraunkortasunari dagokionez.

Artikuluak gaur egungo galesez mintzatzen diren komunitateen dinamika elkarlotuak aztertzen ditu, dentsitate altuko, ertaineko eta baxuko eremuetan barrena. Argudiatzen du eremu horiek —behintzat galesaren testuinguruan— elkarri lotuta daudela continuum geolinguistikoen bidez, eta geruza anitzeko kodependentzia sozial, kultural eta ekonomikoetan funtzionatzen dutela. Dentsitate altuko eremuak tradizionalki hizkuntzaren bizindarraren muintzat jo izan diren arren, artikulu honek azpimarratzen du galesaren egungo testuinguruan halako eremuak ez direla hiztun-dentsitate ertaineko edo baxuko eremue-tatik isolatuta aritzen. Era berean, dentsitate ertaineko eta baxuko eremuek ere lotura sendoak behar dituzte —continuum geolinguistikoko bat edota kodependentzia sozial, kultural eta ekonomiko bat— dentsitate altuko eremuekin. Galesez mintzatzen diren komunitateak elkarri lotuta daude pertsonen joan-etorrien bidez, ekologia ekonomiko eta kultural saretu eta geolinguistikoko batean. Erlazio horrek iradokitzen du galesak komunitate-hizkuntza gisa izango duen etorkizuna ez dela soilik dentsitate altueneko eremuak sendotzearen araberakoa; galesa herrialde osoan indartzea ere ezinbestekoa da, bai eta continuumaren

1. Prosiect BRO proiektua dentsitate altuko eremuen inguruan egiten ari den lana University of Wales Trinity Saint David, University of the Highlands and Islands eta Oxford University-ren arteko lankidetzan da, Galeseko Gobernuak babestua. <https://www.wales.ac.uk/bro>

eta kodependentziaren kontzientzia hori eztabaidaren eta politikagintzaren erdigunean jartzea ere.

Gako-hitzak hizkuntza-politika, hizkuntza-plangintza (LPP), galesa, hiztun-dentsitatea, arnasgunea.

Sarrera

Artikulu honek Galesen eta galesaren kasua aztertzen du, hizkuntzaren gotorlekuen, hizkuntzaren bihotz-eremuen edo hiztun-dentsitate altuko komunitateen gaiarekin lotuta. Euskararen testuinguruan garatutako «arnasgune» kontzeptu eta markoa ikuspegi galestar batetik arakatuz, artikuluak bi hizkuntzen eta haien egoera soziolinguistikoen arteko alderaketa-puntuak eta desberdintasunak azpimarratzen ditu. Galesak gaur egun dituen lau erronka aurkezten ditu: hiztun-kopurua handitzea, hezkuntza-politika, erabilera soziala eta hiztun-portzentajea altuena duten eremu eta komunitateetan hizkuntzari eustea. Azkenaldiko politikako esku-hartzeak eztabaidatzean, artikuluak argudio nagusi hau defendatzen du: beharrezkoa dela continuumaren eta kodependentziaren errealitatea eta garrantzia ulertzea eta aitortzea, Galesen kasuan, dentsitate altuko, ertaineko eta baxuko eremuetan zehar. Ondorioz, proposatzen du continuuma eta kodependentzia kontuan hartu beharko liratekeela hiztun-dentsitate altuko eremuak sostengatzeko erronkei erantzuteko politikak garatu eta inplementatzeko erabiltzen diren marko kontzeptualetan.

Galesa

Galesa, Europako hizkuntza gutxituen alorrean, ingurune linguistiko ezagune-netako bat da ekintzaile, ikertzaile eta politika-arduradunen artean. Tamaina ertaineko hizkuntza gutxitua da, milioi-erdi hiztunetik gora dituen (Welsh Government, 2022); hizkuntza-mugimenduak eta kultur elkarteak sustatzen dituen gizarte zibil aktiboa, oinarri sozioekonomiko zabala eta eremu askotan garatu eta ezarri diren hizkuntza-politikak dituen ingurune publikoa ditu.

Orain dela hogeita hamar urte, Europar Batasuneko 48 gutxiengo linguistikoren produkzio eta erreprodukzio linguistikoaren azterketan, *Euromosaic* txostenak (Nelde et al., 1996) bigarren multzoan kokatu zuen galesa, Euskal Autonomia Erkidegoko euskara baino puntu bat beherago, eta Nafarroako euskara eta Ipar Euskal Herriko euskara baino multzo bat gorago. Geroztik, hizkuntza-plangintzako ikuspegi desberdinek eta faktore sozioekonomiko

desberdinek eragin dute galesaren eta euskararen gaur egungo egoeran, bai haien lurraldeetan, bai diasporako komunitateetan eta eremu digitaletan.

Galesa eta euskara

Bi herrien eta hizkuntzen antzekotasunak ezagunak dira honezkero: biek dute 20.000 km² inguruko lurraldea eta 3 bat milioi biztanleko populazioa; nola euskara hala galesa linguistikoki urrun daude gaztelaniatik/frantsesetik eta ingelesetik; haien hiztunak adin guztietakoak dira eta ingurune landatar nahiz urbanoetan bizi dira; eta hiztunen ehunekoak eta kopuruak ez dira oso desberdinak, nahiz eta euskarak, azken hiru hamarkadetan, abantaila nabarmena hartu dion galesari, eta badirudien antzera jarraituko duela aurrerantzean.

Bi talde linguistikoek, beren ideia, esperientzia, kanpaina, ikerketa, ekimen eta politikekin, ekarpen nabarmena egin diete «eremu urriko hizkuntzen», «aniztasun linguistikoaren» eta «gutxituta eta galzorian dauden hizkuntzen» iraunkortasunari buruzko Europako diskurtsoei. Nahiz eta Gales, Erresuma Batuaren parte denez, jada ez dagoen Europar Batasunean, Galesen Europako sareetako parte-hartzeak bere horretan dirau. Galeseko ekintzaileak, akademikoak eta politika publikoetako arduradunak ELEN² eta NPLD³ sareetako kideak dira: lehena, Hizkuntza Berdintasunerako Europako Sarea, gizarte zibileko alor honetako elkarteak ordezkatzan dituen GKEa da, eta bigarrena, Hizkuntza Aniztasuna Sustatzeko Sarea, gobernu autonomo eta erregionaletako ordezkartzan aritzen da nagusiki. Nahiz eta Erresuma Batuak ezin duen jada Erasmus+ programan parte hartu, biziberritze linguistikoaren alorrean badira Europar Batasuneko programa batzuk Erresuma Batuaren parte-hartzea onartzen dutenak, esaterako E-COST-Action Plurilingmedia⁴ eta EU Horizon programako Fosterlang⁵ proiektua, eta horietan sartuta dago Gales.

Galesen eta Euskal Herriaren arteko aldebiko harremana sare horiek baino lehenagokoa da, norbanako garrantzitsu batzuen⁶, Mercator sarearen eta garai bateko Hizkuntza Gutxituen Europako Bulegoaren bidez. Hamarkadetan zehar, bi talde linguistikoek kontaktu eta trukeak izan dituzte sarri, gehienetan sare horien bidez. 2022an, Etxepare Euskal Institutuak, nire unibertsitatearekin

2. ELEN <https://elen.ngo/>

3. NPLD <https://npld.eu/>

4. Plurilingmedia <https://plurilingmedia.eu/>

5. Fosterlang <https://fosterlang.al.uw.edu.pl/>

6. Aipamen berezia egin behar zaio Ned Thomasen eta Txillardegiren arteko harremanari; ikusi, adibidez: Thomas, N. (2010) Bydoedd Tal-y-bont: Y Lolfa.

lankidetzan, Soziolinguistikako Alan R. King Katedra⁷ jarri zuen martxan, bi herrietan alor honetan diharduten ikertzaileen, gizarte zibilaren eta politika-arduradunen arteko hartu-emanaren sendotu eta are gehiago garatzeko. 2026ko urtarrilean, Galesko Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak beren harremana berritu zuten, Elkar Ulertzeko Memorandum⁸ eguneratu bat sinatuta. Horren bidez, garraioan, energian, teknologian, elikaduran, hezkuntzan, estrategia fiskalean, gizarte-politikan, osasunean, kulturen eta hizkuntzan, besteak beste, elkarrekin lan egiteko konpromisoa hartu zuten.

Euskararen egoera soziolinguistikoa, eta azken 40 urteetan lortutako aurrerapena, gaur egun galesaren alde diharduten ekintzaile, ikertzaile eta politika-arduradunentzako kanpoko erreferentzia- edo alderaketa-puntu garrantzitsuenak dela esan liteke.

Galesaren egungo erronkak

(1) Hitzunen kopuruak eta ehunekoak

Azken bost hamarkadetako erroldetan eta soziolinguistika-inkestetan jasotako datuen arabera, euskal hitzunen kopuruek eta ehunekoek gora egin dute; ezin da, ordea, gauza bera esan galesari buruz. Erresuma Batuko erroldako datuen arabera, Galesen bizi diren eta galesez mintzatzeko gai diren 3 urtetik gorako biztanleen kopuruak behera egin zuen hamarkadaz hamarkada XX. mendean zehar 1991ra arte; urte hartan, igoera txiki bat antzeman zen, 1981-1991 tartean gales-hitzunen populazioak 503.500etik 508.100era egin baitzuen gora. 2001ean, igoera handixeagoa nabaritu zen, 582.400 hitzun zenbatu baitziren. Halere, azken bi erroldetako beheranzko joera erakutsi dute, 20.400 hitzun gutxiago baitzeuden 2011n eta 23.700 hitzun gutxiago 2021ean. Gales-hitzunen kopurua, beraz, 538.300ekoa da gaur egun; zenbaki horrek inoiz erregistratutako ehunekorik txikiena adierazten du, baina ez kopururik txikiena, 1. taulan erakusten den bezala.

7. Alan R. King Katedra <https://www.etxepare.eus/eu/euskal-ikasketak-katedrak>

8. <https://media.service.gov.wales/news/wales-must-take-every-opportunity-to-work-with-other-nations-and-regions-following-agreements-with-catalonia-and-basque-country> [2026ko otsailaren 1ean kontsultatua]

1. taula. Hiru urte edo gehiago dituzten eta galesez mintzatzeko gai diren biztanleen kopuruak, 1921etik 2021era [Galesen].

Urtea	Kopurua	Biztanleen ehunekoa (%)
1921	922.100	37,1
1931	909.300	36,8
1941	1941ean, Bigarren Mundu Gerraren ondorioz, ez zen erroldarik egin.	
1951	714.700	28,9
1961	656.000	26,0
1971	542.400	20,8
1981	503.500	19,0
1991	508.100	18,7
2001	582.400 (r)	20,8
2011	562.000	19,0
2021	538.300	17,8

Iturria: Welsh Government / ONS, Census of Population 1921–2021; Welsh language in Wales, Census 2021.

Eskozian ez bezala, non errolda 2022ra atzeratu baitzen, Erresuma Batuko errolda 2021ean egin zen Galesen, COVID pandemiaren erdian, eta haurrak ez ziren eskolara ohi bezala joaten osasun publikoan ezarritako murrizketen ondorioz. 2011-2021 tartean, eskolatze-adinean zegoen biztanleriaren zati horrek bizi izan zuen, alde handiaz gainera, jaitsierarik handiena, bai kopuruetan, bai ehunekoetan: 3-15 urteko 22.200 hiztun gutxiago zenbatu ziren, eta 5-15 urtekoen artean 6 puntuko jaitsiera izan zen.

2. taula. Hiru urte edo gehiago dituzten eta galesez mintzatzeko gai diren biztanleen kopuruak eta ehunekoak, adin-taldeka, 2011-2021.

Adin-taldea	2011		2021	
	Kopurua	%	Kopurua	%
3-4	16.500	% 23,3	11.900	% 18,2
5-15	152.300	% 40,3	134.700	% 34,3
16-19	43.700	% 27,0	38.800	% 27,5
20-44	150.700	% 15,6	153.800	% 16,5
45-64	107.900	% 13,3	107.300	% 13,0
65-74	45.100	% 15,0	45.900	% 12,8
75+	45.800	% 17,5	45.800	% 15,1
Guztira (3+)	562.000	% 19,0	538.300	% 17,8

Iturria: Welsh Government / ONS, Census of Population 1921-2021; Welsh language in Wales, Census 2021.

Zenbaki horiek iradokitzen dute errolda pandemiaren garaian egin izanak, ikasleak eskolara joan gabe egon zirelako luzaroan, azaltzen duela neurri handi batean hiztun-kopuru orokorrean izandako jaitsiera. Hala ere, garrantzitsua da azpimarratzea haur eta gazteek pandemiaren garaian hezkuntza-sistemaren eta hari lotutako sozializazioaren bidez galesa eskuratzeko, erabiltzeko eta garatzeko aukerak galdu edo eten izanak epe ertaineko eta luzeko ondorioak izan ditzakeela. Pandemiaren ondorioen eta 2021eko gales-hiztunen kopuruen arteko korrelazio zuzena egon arren, argi ikusten da gales-hiztunen kopurua ez dela handitzen ari Galeseko gobernuak 2017an argitaratutako 2050erako milioi bat gales-hiztun lortzeko helburuaren proiektzio edo ibilbidearen arabera (Llywodraeth Cymru, 2017).

3. taula. Hiru urte edo gehiago dituzten eta galesez mintzatzeko gai diren biztanleen kopuru eta ehunekoen proiektzio-ibilbidea, 2050 arteko garai zehatzetan.

Urtea	Kopurua	Ehunekoa
2011	562,000	19
2017	580,000	19
2021	600,000	20
2026	630,000	20
2031	680,000	22
2036	750,000	24
2041	830,000	26
2046	920,000	29
2050	1,000,000	31

Iturria: Welsh Government / ONS, Census of Population 1921–2021; Welsh language in Wales, Census 2021.

«Cymraeg 2050 Strategy: A million Welsh speakers» estrategia (Welsh Government, 2017) 2017an onartu zuen Galeseko gobernuak, eta «miloi bat gales-hiztun» leloa Cymdeithas yr Iaith Gymraeg elkarteak gizarte zibiletik bultzatutako kanpainatik hartu zuen. Cymraeg 2050 estrategiak hiru ardatz estrategiko ditu: (a) gales-hiztunen kopurua handitzea, (b) galesaren erabilera handitzea, eta (c) baldintza lagungarriak sortzea: azpiegiturak eta testuingurua.

(2) Hizkuntza-jabekuntza hezkuntzaren bidez

Galesaren eta euskararen azken hamarkadetako historia soziolinguistikoa izandako desberdintasun esanguratsuenetako bat da administrazio bakoitzeko hezkuntza-sistemak zer erritmotan heldu dion euskarazko eta galesezko hezkuntzaren eskuragarritasuna handitzeko auziari. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, hezkuntza arautua euskaraz jasotzen zuten ikasleak (D eredua) % 15 baino gutxiago ziren 1980ko hamarkadaren erdian (Lloyd Williams et al., 2024), eta 2024rako⁹ % 70 baino gehiago ziren sistema bateratuan (eta % 94 sistema publikoan). Onartu behar den arren ez dela halako bilakaerarik izan Nafarroan eta Iparraldean, Euskal Autonomia Erkidegoan eskolatutako 360.000 haur eta gazteen gehiengo handi bat D ereduan matrikulatzeak nabarmen eragin du adin-talde gazteenetako hiztun-kopuruaren gorakadan. Galesaren kasuan, ez da halako aurrerapenik lortu orain arte. Gaur egun, eskolatzeko-adinean dauden biztanleen % 17 inguru galesezko eskoletan matrikulatzen dira, eta % 9 inguru

9. <https://orain.eus/es/actualidad/sociedad/2024/09/06/comienzo-curso-escolar-2024-2025-en-cav/>

eredu elebidunetan. Ingelesezkotako hezkuntza –galesa irakasgai gisa hartuta– eredu nagusia da oraindik alde handiz: 2023/24 ikasturtean ikasleen % 73 zeuden eredu horretan matrikulatuta, 2003/04 ikasturteko % 79rekin alderatuta.

4. taula. Ikasle-kopurua ikastetxeko irakaskuntza-hizkuntzaren arabera, 2003/04-2023/24

	Galesezko eredia	Elebiduna	Ingelesezkotako eredia	Baztertuak	Guztira
2003/04	91.300 (% 19)	8.930 (% 2)	389.340 (% 79)	4.591 (% 1)	494.161
2012/13	73.888 (% 16)	42.776 (% 9)	342.449 (% 74)	5.755 (% 1)	464.868
2022/23	77.922 (% 17)	42.160 (% 9)	343.700 (% 73)	6.090 (% 1)	469.872
2023/24	78.582 (% 17)	40.783 (% 9)	340.003 (% 73)	6.472 (% 1)	465.840

Iturria: StatsWales, Welsh Government, Maintained schools and pupils by local authority, Welsh medium type and year (2023/24ra arte). Kategoriak Lloyd Williams et al. (2024) lanari jarraituz bateratu dira.

Galesen, aldakortasun handia dago eskualde batetik bestera, eta eskolatze-adinean dauden eta nagusiki ingelesezko hezkuntza jasotzen duten biztanleen ehunekoak bat datoz galesez inolako gaitasunik ez duten adin guztietako biztanleen ehunekoekin, Erresuma Batuko eroldaren arabera. Merezki du gogoraraztea hezkuntza agintaritzaren mailako arazko betebeharra dela Galesen, eta gizarte zibileko hainbat elkarrek galesezko hezkuntzarako sarbide ekitatiboagoa eskatu dutela behin eta berriz, kanpaina nazional eta lokalen bidez, gurasoen ekintza-taldeen bidez nahiz auzi estrategikoen bidez. Izan ere, galesaren biziberritzearen alde dihardutenen artean frustrazio handia eragiten du oraindik ere hainbeste traba daudela ikusteak, eta ohartzeak zein zaila den galesezko hezkuntza ezartzea eta populazioaren gehiengoarentzako aukera erreal bihurtzea, denbora-tarte berean Euskal Autonomia Erkidegoan bihurtu den bezala.

Itxaropen handia dago berriki onartutako Welsh Language and Education (Wales) Act 2025 legeak aldaketa hori azkenik Gales osoan eragingo duelakoan. Legeak 2050erako milioi bat gales-hiztun izateko helburua lortzen lagunduko du, eta horretarako neurriak ezarriko ditu ikasle guztiak, derrigorrezko eskola-adina bukatzen dutenerako, gutxienez galesaren erabiltzaile independenteak izan daitezkeen. Laburbilduz, Welsh Language and Education (Wales) Act 2025 legeak galesaren estrategiari 2050erako gutxienez milioi bat gales-hiztuneko jomuga jasotzeko betebeharra ezarriko dio, baita galesaren erabilerarekin lotutako beste jomuga batzuk ere, lantokiko eta gizarteko erabilera barne. Gainera, galesaren gaitasuna Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren mailen arabera deskribatzeko ikuspegi estandarra ezarriko du. Eskoletarako arazko

hiru hizkuntza-kategoria zehazten ditu («nagusiki galesa», «bi hizkuntzakoa» eta «nagusiki ingelesa, partez galesa»), eta hizkuntza-kategoria horiek izendatzeko arauak ezartzen ditu, bai eta kategoria bakoitzerako galesezko hezkuntzaren gutxieneko kopuruari eta galesa ikasteko helburuei buruzko eskakizunak ere. Maila nazionalen egindako hizkuntza-plangintza (Galeseko ministroei Galesezko Hezkuntzaren eta Galesaren Ikaskuntzaren Marko Nazionala prestatzeko betebeharra ezarri), agintaritza lokalen mailakoa (hezkuntzan galesa sustatzeko plan estrategiko lokalak prestatzeko betebeharra ezarri) eta eskola-mailakoa (galesezko hezkuntza emateko planak prestatzeko betebeharra ezarri) lotuko ditu. Galesa Ikasteko Institutu Nazionala ere eratuko du, adin guztietako jendeari galesa ikasten laguntzeaz arduratuko den erakunde berria.

(3) Galesaren erabilera soziala

Hizkuntza gutxituaren erabilera soziala handitzea Europa osoko komunitateek partekatzen duten helburua da. Kataluniaren kasuan, biztanleen % 90 inguruk hitz egin dezakete katalanez, % 79k lanean edo eskolan erabiltzen dute, % 78k gutxienez noizbehinka erabiltzen dute lagunekin eta % 68k maila batean edo bestean erabiltzen dute familian¹⁰. Baldintza horietan ere, ordea, ekintzaile, ikertzaile eta politika-arduradunen artean kontzientzia sendoa dago katalanaren erabilera soziala presio handiaren pean dagoela, neurri handi batean egiturazko baldintzen ondorioz: sare sozialen, ikus-entzunezkoen eta espazio digitalen eragina, populazioaren mugikortasuna, eta elkarriketa eta hartu-emanak hizkuntza bakarrean egiteko edo hizkuntza bakarrera aldatzeko arau sozialak, gartzelania bihurtzen delarik hizkuntza bakar hori. Bartzelonako Udalak, berriki, Katalanaren Erabilera Sozialerako mandatariaren¹¹ kargua sortu du, eta hainbat ikerketak erakusten dute adin-talderik gazteena dela katalanez hitz egiteko gaitasun handiena duena, baina adin-talde horretako hiztunak ez direla katalanaren erabiltzaile beste adin-talde askotako hiztunak bezain intentsiboak (Departament de Política Lingüística & Institut d'Estadística de Catalunya, 2025; Vila i Moreno et al., 2023). Antzeko kezka-diskurtsoak aurki daitezke Europako hizkuntza gutxitu edo galzorian dauden hizkuntza-komunitate askotan hizkuntzaren erabilera sozialari dagokionez.

Alde horretatik, Gales ez da salbuespena. Esaterako, Welsh Language and Education (Wales) Act 2025 legearen 1. zatiak «galesaren erabilera sustatzea eta erraztea» du izenburu, eta galesaren estrategiaren helburuei egiten die

10. <https://llengua.gencat.cat/ca/el-catala/coneixement-i-us/>

11. <https://ajuntament.barcelona.cat/ca/organigrama-municipal/organ/Comissionat%20d%27%C3%9As%20Social%20del%20Catal%C3%A0>

erreferentzia: gutxienez milioi bat gales-hiztun lortzea eta erabilera handitzea. Legeak dio «galesaren erabilera sustatzeko eta errazteko estrategiak Galesen gales-hiztunen kopurua 2050erako gutxienez milioi batera handitzeko helburua jaso behar duela»; horrek esan nahi du lege hau onartzearen ondorioz helburu estrategikoa arauzko helburu bihurtu dela. Gainera, Legeak jasotzen du estrategiak «Galesen galesaren erabilera handitzeko helburuak ezarri behar» dituela, lantokiko eta gizarteko erabilera barne. Galesaren erabilera handitzea da Cymraeg 2050 estrategiaren bigarren helburu nagusia, eta testuinguru horretan eguneroko erabiltzaileen ehunekoa bikoiztea da xedea. Galeseko gobernuak hizkuntzaren erabilera handitzea Cymraeg 2050 estrategiaren testuinguruan¹² egiten duen «guztiaren erdigunean» jartzen du. Adierazten du «Gobernu osoan eta Gales osoko hainbat bazkiderekin lanean jarraituko» duela «gure hizkuntzaren erabilera handitzeko etxean, gizarte- eta komunitate-mailan, eskolako jolastokian, lantokietan, negozioetan eta digitalki». Galesaren erabilera sozialaren garrantzia ezin liteke modu sinesgarriago batean adierazi. Galesaren testuinguruan, hizkuntzaren erabilera sozialak familia barruko eta lantokiko erabilera barne hartzen ditu, baita aisialdiko, kulturako eta kiroleko, komunitate-bizitzako eta sareko erabilera ere.

Hala ere, hizkuntza gizarte-fenomenoa da, eta sozialki erabiltzeko aukerak hiztunek elkar topatzen duten leku eta espazioen arabera dira, non hartu-emanak trabarik gabe gerta daitezkeen. Erabilera sozialerako baldintzak egiturazko faktoreek zehazten dituzte, Isasik eta Txillardegik (1994) eta galesaren, euskararen eta galzorian dauden hizkuntzen testuinguru zabalagoetan beste askok argudiatu duten bezala. Fishmanen «breathing spaces» kontzeptua (Fishman, 1991, 59. or.), non hizkuntza (gutxitua) hizkuntza nagusiaren presiorik gabe erabil daitezkeen, asko garatu da euskal testuinguruan (liburu honetako beste kapitulu batzuetan azaldu den bezala) Mikel Zalbideren, Iñaki Iurrebasoren eta beste batzuen lanetan, BAT Soziolinguistika Aldizkarian (2019), kazetaritzan, UEMAk eta beste batzuek egindako kanpainetan eta politikagintzan, *Euskararen arnasguneak: Definizioaren eta erronken berrikuspena* (2024)¹³ dokumentuan. Euskal eztabaida ingelesez ikusteko, ikus Dorronsoro (2025, argitaratzear); eta galesez, Jones (2025)¹⁴. Nazioarteko literaturan, Belmarrek eta Glassek (2019) ekarpen garrantzitsua egin zioten Fishmanen «breathing spaces» kontzeptuaren garapenari, arnasgune digital edo birtualen eztabaidan sakonduz.

12. <https://www.gov.wales/cymraeg-2050-welsh-language-strategy-action-plan-2025-2026.html>

13. <https://arnasagara.eus/arnasguneak/> edo Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritza & UEMA. (2024ko martxoa). *Euskararen arnasguneak: Definizioaren eta erronken berrikuspena*. https://arnasagara.eus/wp-content/uploads/2024/03/Euskararen-arnasguneak_2024ko-martxoa.pdf

14. <https://pedwargwynt.cymru/dadansoddi/fel-gall-ein-hiaith-ni-andalu-yma>

Euskal Herrian *breathing spaces* edo arnaguneen esanahiaren inguruan egin den eztabaidak ekarpen garrantzitsua egin dio haien garapenari eta beste komunitate linguistiko batzuetan egin daitekeen aplikazioari. Arnasguneek, geografia-komunitateak direnez (hau da, hiztun-dentsitate altuko eremuak), hizkuntzak trabarik gabe erabiltzeko espazio sozial ugari ere eskaintzen dituzte, eta horrek Fishmanen *breathing spaces* deiturikoen definizio zabalagoa islatzen du. Dentsitate altuko eremu geografikoen iraunkortasunaren garrantzia, galesaren testuinguruan, 1960ko hamarkadatik aurrerako kanpaina linguistikoen muina izan da, hizkuntza Gales osoan biziberritzeko kanpaineekin batera. Labur esanda, galesaren erabilera soziala sustatzeko diskurtsoan, beti azpimarratu izan dira bai geografia sozialak, bai espazio linguistikoak (espazio digitala barne).

Dentsitate linguistiko altuko eremuen iraunkortasuna

Cymraeg 2050 estrategiaren hirugarren gaiak, «Baldintza lagungarriak sortzea: azpiegiturak eta testuingurua», ekimen sorta zabala biltzen du, teknologiatik eta azpiegitura linguistiko digitaletatik kulturara eta hedabideetara. Arlo horretako lehen helburua «Komunitatea eta ekonomia: ekonomia garatzea galesez mintzatzen diren komunitateentzat oinarri sendoa bermatzeko» da, eta esplizituki aipatzen ditu «gales-hiztunen dentsitate altua duten komunitateak». 2025-2026ko Ekintza Plan berrienean (Welsh Government, 2025), gai hori Etxebizitza, Hizkuntza eta Enpleguarekin hasten da, eta adierazten du Galeseko gobernuak «konprometituta dagoela galesez mintzatzen diren komunitateen iraunkortasuna babesteko, etxebizitzaren, hizkuntza-plangintzaren, ekonomiaren eta garapen ekonomikoaren politikak lerrotatuz ezarri beharreko esku-hartze sorta bat eskaintzeko». Ekintza Plana argitaratu zenean, Galeseko gobernuak oraindik ez zuen argitaratu Galesez Mintzatzen diren Komunitateen Batzordearen lehen txostenari, *Empowering Communities, Strengthening the Welsh Language* (2024ko abuztua), emandako erantzuna.

Galesez Mintzatzen diren Komunitateen Batzordea

Galesez Mintzatzen diren Komunitateen Batzordea 2022ko abuztuan eratu zuen Galeseko gobernuak, *Second Homes: Developing new policies in Wales* (2021) txostena argitaratu ondoren. Batzordeari ardura hau eman zitzaion: «Gobernuari gomendioak ematea galesa etorkizunean komunitate-hizkuntza gisa babesteko... [eta] gure komunitateetan hizkuntzak duen osasunari buruzko analisi soziolinguistikoa gidatzea»; horrek aukera emango zion «galesez mintzatzen diren komunitateek dituzten erronkak kontuan hartzeko eta COVID-19aren ondorengo

berregituratze linguistiko, sozioekonomiko eta sozialeko erronkak eta Erresuma Batuak Europar Batasunetik irteteko hartutako erabakia hobeto ulertzeko».

2022an, Galeseko gobernuak *Welsh Language Communities Housing Plan* (Welsh Government, 2022) argitaratu zuen; plan horrek hainbat ekimen jaso zituen, «ekonomiaren, etxebizitzaren, komunitate-garapenaren eta hizkuntza-plangintzaren alorreko esku-hartzeak bateratzeko, galesez mintzatzen diren komunitateek bideragarri izaten jarrai dezaten ekonomikoki eta linguistikoki» (Welsh Government, 2022).

Garai berean, University of Wales Trinity Saint David, University of the Highlands and Islands eta Jesus College Oxford University erakundeen arteko lankidetzak bat garatu zen gales-hiztunen dentsitate altuko eremuak ikertzeko. Prosiect BRO: *gaur egungo galesez mintzatzen diren komunitateen inkesta soziolinguistiko orokorrak*¹⁵ Batzordearen lana ere babestu zuen erroldako datuen analisien bidez eta Batzordearen eztabaidetan aurkezpenak eta ekarpenak eginez, bere lehen txostena, *Empowering Communities, Strengthening the Welsh Language*, argitaratu aurretik.

Ekimen horiek argi erakusten dute Galeseko gobernuak garrantzi handia ematen diola gales-hiztunen dentsitate altuko eremuak iraunarazteari, bai eta galesaren aldeko bere estrategiari ere.

Komunitateak ahalduntzen, galesa indartzen

Bere lehenengo txostenean (*Empowering Communities, strengthening the Welsh Language* [Komunitateak ahalduntzen, galesa indartzen], Batzordeak gomendio sorta zabal bat argitaratu zuen. Zehazki, 57 politika-gomendio egin zituen galesez mintzatzen diren komunitateak babesteko eta indartzeko, zortzi politika-alorretan banatuta: ekonomia, lantokiak, komunitateen garapena, etxebizitza, herri- eta herrialde-mailako plangintza, berdintasuna-aniztasuna-inklusioa, galesezko hezkuntza eta komunitateko hizkuntza-plangintza. Txostenaren gomendio nagusia «dentsitate linguistiko altuko eremuak» izendatzea zen, eta eremu horietan arreta handiagoa eskaintzea galesari aipatutako zortzi politika-alor horietako politiketan. Galeseko gobernuaren barruan unitate espezialista bat sortzea ere gomendatzen zuen, dentsitate linguistiko altuko eremuetarako politikak koordinatzeko.

15. Prosiect BRO <https://www.wales.ac.uk/bro>


Continuum geolinguistikoa eta kodependentzia. Dentsitate linguistikoko altuko eremuak: galesaren egungo testuingurua

Galeseko kartografiak, oro har, galesez hitz egiteko gai den biztanleriaren ehunekoa edo dentsitatea % 10eko eskalen bidez irudikatu izan du, % 0-10etik % 80tik gorako tartetara. Mapa horiek dentsitate altueneko eremuen zatikatzea nabarmentzen dute denboran zehar. % 70eko atalasea maiz aurkezten da mugarri gisa, edo testuinguru honetan komunitate geografikoan hizkuntzarentzako gizarte-mailako aldaketa-puntua erakusteko estatistikarik esanguratsuena bezala. Ehuneko hori, nagusiki, baldintza horietan pertsonen arteko komunikazioaren hizkuntza zein izango den kalkulatzeko probabilitatean oinarritzen da, soziolinguistikaren ikuspegi matematikoetan oro har egin izan den bezala (ikus, adibidez, Isasi et al., 1994).

Batzordearen gomendioa «dentsitate linguistikoko altuko eremuak» definitzen dituen atalasea % 40an ezartzea zen, Erresuma Batuko 2021eko erroldan, eta agintaritza lokalei malgutasuna ematea atalase hori baino pixka bat beherago kokatzen diren eremuak izendatzeko. Galeseko 22 agintaritza lokaletatik lauk baino ez dute % 40tik gorako hiztun-portzentajea (Gwynedd, Ynys Môn, Ceredigion eta Sir Gaerfyrddin, ikusi beheko taula/mapa). Hiztun-portzentajea batezbesteko nazionala baino altuagoa den beste bi agintaritza lokaletan (Conwy eta Sir Ddinbych konderrietan), beste 20 auzo¹⁶ daude non hiztun-portzentajea % 40tik gorakoa den, eta batezbesteko nazionaletik behera dauden hurrengo hiru agintaritza lokaletan (Sir Benfro, Powys eta Castell-nedd Port Talbot konderrietan), halako ehunekoak dituzten beste 17 auzo daude landaguneetan eta eremu postindustrialetan. Bederatzai agintaritza lokal horietatik kanpo, ez dago auzorik non gales-hiztunen portzentajea % 40koa edo handiagoa den.

16. Auzo horien izen teknika Lower Layer Super Output Area (LSOA) da. 1.000-3.000 biztanle inguruko unitateak dira. Galesen, 1.917 LSOA daude guztira. Horietatik 232tan, 3 urte edo gehiago dituzten eta galesez mintzatzeko gai diren biztanleak % 40 edo gehiago dira.

1. mapa. Hiru urte edo gehiago dituzten gales-hiztunak agintaritza lokalen arabera, Gales, 2021eko errolda.



Iturria: Welsh Government / ONS, Census 2021.

5. taula. Galeseko 3 urte edo gehiago dituzten gales-hiztunen kopuru eta ehunekoak 22 agintaritza lokalen eta batezbesteko nazionalaren arabera.

	2021	
	Kopurua	Ehunekoa
Gwynedd	73.600	64,4
Ynys Môn	37.400	55,8
Ceredigion	31.700	45,3
Sir Gaerfyrddin	72.800	39,9
Conwy	29.000	25,9
Sir Ddinbych	20.900	22,5
Cymru (Gales)	538.300	17,8
Sir Benfro	20.600	17,2
Powys	21.400	16,4
Castell-nedd Port Talbot	18.700	13,5
Rhondda Cynon Taf	28.600	12,4
Wreccsam	16.000	12,2
Caerdydd	42.800	12,2
Sir y Fflint	17.400	11,6
Bro Morgannwg	14.700	11,5
Abertawe	26.000	11,2
Caerffili	17.800	10,5
Pen-y-bont at Ogwr	13.000	9,2
Merthyr Tudful	5.100	8,9
Sir Fynwy	7.900	8,7
Torfaen	7.400	8,2
Casnewydd	11.600	7,5
Blaenau Gwent	4.000	6,2

Iturria: Welsh Government / ONS, Census 2021.

Laburbilduz, 243.416 biztanle, edo gales-hiztunen % 45, gales-hiztunen batez besteko ehunekoa % 40koa edo handiagoa den konderrietan bizi dira, edota hiztun-portzentajea % 40koa edo altuagoa den auzoetan. Horrek zera esan nahi du: gales-dentsitate altuaren atalasea % 40an ezarriko balitz, Batzordearen gomendioek —politika publikoetan inplementatuz gero— Gales osoko gales-hiztunen ia erdien bizitzetan eragingo luketela.

Behean ageri den 6. taulan, Galeseko datuak Euskararen Inkesta Soziolinguistikoa erabilitako lau eremuen arabera sailkatu dira. Erresuma Batuko 2021eko erroldako¹⁷ datuek erakusten dutenez, gales-hiztunen % 2 bizi dira biztanleen % 80 edo gehiago galesez mintza daitezkeen auzoetan. Guztira 15.000 biztanle baino gutxiago dituzten komunitate barreiatuetarako hizkuntzaren biziberritze-politikak eratzea ez da egingarria galesaren testuinguruan, baina, era berean, ez da jendearen bizimoduaren isla ere. Dentsitate altuko eremuak izendatzeko ehunekoak altuegi ezartzeak eta Galeseko testuinguruan politika publikoak aldatzeak okerreko irudia emango luke: «gune linguistiko isolatu» gisa deskribatuko lituzke berez continuum linguistiko geografiko baten barruan dauden eta testuinguru sozialean, kulturalen eta ekonomikoan kodependentzia bat partekatzen duten auzoak.

6. taula. Galeseko datuak euskararen 1-4 hizkuntza-eremuen arabera.

Hizkuntza gutxituko hiztunen ehunekoaren araberako eremuak (2021)	Euskara (Euskal Autonomia Erkidegoa soilik)		Cymraeg	
	Hiztun- kopurua	Hiztun guztien %	Hiztun- kopurua	Hiztun guztien %
1. eremua: % 20tik behera	219.385	% 32	246.716	% 46
2. eremua: % 20-% 50	157.209	% 23	146.669	% 27
3. eremua: % 50-% 80	219.008	% 32	131.515	% 24
4. eremua: % 80tik gora	85.027	% 12	13.412	% 2
GUZTIRA	680.629	% 100	538.312	% 100

Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Galeseko Gobernua, 2021eko errolda.


Dentsitate altuko eremuak % 40ko atalasearekin mapan irudikatzeak aukera ematen du komunitateetako pertsonen nola bizi, lan egin, ikasi eta beren bizitza nola antolatzen duten hobeto kontuan hartzeko, bereziki landa-eremuetan eta erdi landatarretan. Adibidez, 2021eko Erresuma Batuko erroldaren arabera, pandemia-

17. 2021eko errolda 2021eko martxoaren 2lean egin zen, pandemiaren eta aldaketa azkarren garaian. Orientabide osagarriak eman ziren aldi baterako lan-erregulazioan zeuden pertsonen lanari buruzko errolda-galderei erantzuteko. Hala ere, ezin da jakin pertsona horiek nola bete zituzten jarraibideak. Kalitateari buruzko kontu zehatz gehiago hemen: <https://www.ons.gov.uk/employmentandlabourmarket/peopleinwork/employmentandemployeetypes/methodologies/traveltoworkqualityinformationforcensus2021>.

garaian egin zena, gales-hiztunen ehuneko handiena duten lau konderrietako biztanleria landunaren % 12 eta % 14 artean etxetik 2 km baino gutxiagora egiten zuten lan. Etxetik 2 km eta 60 km artean lan egiten zutenen ehunekoa % 35 zen Ceredigionen, % 42 Gwynedden, % 46 Ynys Môn eta % 47 Sir Gaerfyrddinen (Carmarthenshire). Nagusiki etxetik lan egiten zutenei dagokienez —eta kontuan hartuta datuak aldatu ahal izan direla COVID murrizketak kendu ondoren—, ehunekoak % 23 ingurukoak ziren Ynys Môn, Gwynedden eta Sir Gaerfyrddinen, eta % 32koak Ceredigionen.

Lanera, ikastera eta beste zerbitzu batzuk jasotzera edo aisia-jarduerak egitera joateko bidaiek ere islatzen dituzte dentsitate altuko, ertaineko eta baxuko eremuen arteko continuum eta kodependentzia. Adibide bat ospitale orokor bat litzateke, gales-hiztunen ehunekoa inguruko eremuetan baino baxuagoa duen auzo batean kokatua. Osasun-zerbitzuak eskaintzen dituen zentro gisa, eskualde eta biztanleria zabal bat artatzen du, non dentsitate altuko, ertaineko eta baxuko auzoak dauden. Eskualde zabal horretan bizi den biztanleriarentzako lantoki bat ere bada. Galesez mintzatzen diren langileetako batzuk dentsitate altuko auzoetan biziko dira. Beste langile batzuk, haiek ere gales-hiztunak, dentsitate ertaineko edo baxuko eremuetan biziko dira. Ospitalea haien guztien lantoki komuna da, non pazienteak eta haien familiak galesez ere artatzen dituzten. Ospitalerik ez balego, ez legoke lantokirik dentsitate altuko auzoetan bizi diren hiztunentzat edo dentsitate ertaineko edo baxuko eremuetan bizi direnentzat. Horrek eremu desberdinen arteko continuum geolinguistikoaren kodependentzia eta garrantzia irudikatzen ditu.

2. mapa. Dentsitate linguistiko altuko (% 40) eta ertaineko (% 20) eremuak, Lower Layer Super Output Areas (LSOA) unitateen arabera, 2021eko errolda.



GAKOA: Kolore ilunez ageri diren eremuak gales-hiztunak % 40 edo gehiago diren auzoak irudikatzen dituzte. Gris argiagoz ageri direnek, berriz, gales-hiztunak % 20 eta % 40 artean diren auzoak adierazten dituzte.

Marra zuzen bertikal eta horizontalek Galeseko biztanleriaren banaketa bertikal eta horizontal mediana adierazten dute; biztanleriaren % 50 marra bakoitzaren alde banatan bizi da.

Dentsitate linguistiko altuko eremuak herrialdeko eremu gutxien populatuetan kokatuta daude.

Iturria: Prosiect BRO, 2021eko Erresuma Batuko erroldako LSOA datuetan oinarrituta.

Continuuma eta «dentsitate ertaineko eremuak»

Azpiarratu behar da Batzordearen lehen txostenean ez zela gomendiorik egin «dentsitate ertaineko» izendapen ofizialik emateko. Hala ere, Batzordeak % 25eko atalase bat proposatu zuen dentsitate ertaineko eremuak deskribapen-eta analisi-xedeetarako adierazteko. Prosiect BROren analisi gehiago egin ondoren, Batzordearen eztabaidak % 20ko portzentajea dentsitate ertaineko eremuak analisi gehiagorako identifikatzeko neurri koherenteena dela jotzera egin du. 2. mapan ikus daitekeenez, % 20ko mugan tarte argia dago hiztunen ehunekoa batezbesteko nazionalaren gainetik duten agintaritza lokalen eta hiztunen ehunekoa horren azpitik dutenen artean. Dentsitate ertainaren maila % 20an kokatzeak aukera ematen du «dentsitate ertaineko» auzo gehiago kontuan hartzeko eta aztertzeko, bereziki hiztunen ehunekoa batezbesteko nazionalaren azpitik duten agintaritza lokalen barruan. Testuinguru horietan, adibidez, biztanleen % 24 galesez hitz egiteko gai diren auzoak beren agintaritza lokalaren batezbestekoa baino ia 12 ehuneko-puntu gorago egon litezke. Galesez hitz egiteko gaitasuna 10etik 2 pertsonak duten auzoetan eguneroko esperientzietan galesak duen presentzia, 10etik 1 pertsonak baino ez duten auzoekin alderatuta, esanguratsua izan daiteke eta gehiago aztertu beharko litzateke.

Galesez Mintzatzen diren Komunitateen Batzordea, bere bigarren fasean, galesak dentsitate ertain eta baxuko eremuetan komunitate-hizkuntza gisa duen erabilera aztertzen ari da. Txostena 2026an argitaratuko da. Testuinguru honetan, «dentsitate ertaineko» eremuak (% 20tik gora baina % 40tik behera) hiru kategoriatan analiza daitezke: (a) azken bost hamarkadetan hizkuntzaren gainbehera bizi izan duten landa- edo erdi landa-eremuak, merkatu-hiriak barne; (b) denbora-tarte berean hizkuntzaren gainbehera bizi izan duten eremu postindustrialak; (c) 1960ko hamarkadatik aurrera hiztun-kopuruan eta -ehunekoan nolabaiteko hazkundea izan duten hiri-eremuak. Azken kategoria horretan sartzen dira Caerdydd (Cardiff) eta Rhondda Cynon Taf hegoaldean, eta Sir y Fflint (Flintshire) iparraldean. Ikerketa gehiago egiten ari dira eremu horietako galesaren profila sakonago ulertzeko. Hasierako behaketek erakusten dute hainbat arrazoi daudela eremu horiek beren agintaritza lokaleko batezbestekoa baino gorago egoteko: besteak beste, 1960ko hamarkadatik aurrera Galeseko beste leku batzuetatik iritsitako gales-hiztunen migrazioaren ondorioak, hazkunde ekonomikoko eskualdeetako enplegu-aukerei eta sektore jakin batzuetan galesezko gaitasunen eskari handiagoari lotuta; galesezko hezkuntzaren bidezko hizkuntza-jabekuntza indartua; gales-hiztunen migrazio-belaunaldi berriak; eta bigarren eta hirugarren belaunaldiak, egonkortasun edo hazkunde

ekonomikoa duten eremu horietan bizitzen jarraitzen dutenak. Garrantzitsua da auzo horien gaur egungo eta etorkizuneko rolak kontuan hartzea hizkuntza-continuumaren eta kodependentziaren kontzeptuak gehiago aztertzen diren heinean.

Ondorioak

Galesaren testuinguruan, oraindik asko dago lortzeko maila nazionalean politika publikoei dagokienez, eta bereziki hezkuntzaren alorrean. XXI. mendearen bigarren laurdenean sartzen ari garen honetan, galesezko hezkuntza jasotzea oso zaila da oraindik Galeseko leku askotan: galesez ikasi nahi duten ikasleek denbora luzez bidaiatu behar dute, eta horrek konpromiso handia eskatzen die familiei ere. Gaur egun, Galeseko hiriburuan, guraso taldeak eta ekintzaileen mugimenduak borrokan ari dira beren auzoan galesez irakasten duen bigarren hezkuntzako ikastetxe bat izan dezaten. Gales Hizkuntzari eta Hezkuntzari buruzko Act 2025 Legea egoera hori zuzentzeko asmoz onartu zen, baina herritarren borroka oinarritzko tresna da oraindik Galesen hizkuntza biziberritzeko. Galesa hizkuntza nazionala den heinean, alegia Galeseko leku guztietako hizkuntza, agerikoa da gehiago egin behar dela hezkuntzaren alorrean, adibidez, ikuspegi hau eguneroko errealitate bihurtu dadin.

Galesaren testuinguruan, galesa Galeseko guztiena dela dioen diskurtsoa, bakoitza non bizi den alde batera utzita, funtsezkoa da dentsitate altuko eremuetarako politikak egitearen beharra ulertzeko. Galeseko gobernuak, Galesez Mintzatzen diren Komunitateen Batzordearen lehen txostenari emandako erantzunean (Welsh Government, 2025), Galeseko leku guztietan galesa indartzeko konpromisoa berretsi zuen. Lehen txostenaren gomendio nagusia —dentsitate linguistikoko altuko eremuak izendatzea— onartu egin zuen Galeseko gobernuak, Galeseko leku guztietan galesa indartzeko marko narratiboaren barruan. Xede horretarako, Galesez Mintzatzen diren Komunitateen Batzordeak 2026an argitaratuko du dentsitate ertain eta baxuko eremuei buruzko txostena. Galeseko gobernuak dentsitate altuko eremuetarako politikak egiteko printzipioa onartzeko duen konpromisoa argia da:

Galeseko gobernuak, beraz, onartzen du «dentsitate linguistikoko altuko» eremuak izendatzea [2. gomendia] garrantzitsua dela galesez mintzatzen diren komunitateak hizkuntza-galera handiagoetatik babesteko.

2026ko maiatzeko hauteskundeak direla eta, Galeseko hurrengo gobernuaren ardura izango da gomendioak ezarriko dituen ala ez, eta noiz ezarriko dituen, erabakitzea.

Hala ere, galesak komunitate-hizkuntza gisa dituen dentsitate altuko, ertaineko eta baxuko eremuen arteko continuumaren eta kodependentziaren kontzeptuek testuinguru honetako politika publikoen garapena eta inplementazioa gidatu beharko dituzte.

Erreferentziak

- Belmar, G., & Glass, M. (2019). Virtual communities as breathing spaces for minority languages: Re-framing minority language use in social media. *Adeptus*, 2019(4). <https://doi.org/10.11649/a.1968>
- Brooks, S. (2021). *Second homes: Developing new policies in Wales*. Welsh Government. <https://webarchive.nationalarchives.gov.uk/ukgwa/20210404111451/https://gov.wales/second-homes-developing-new-policies>
- Departament de Política Lingüística, & Institut d'Estadística de Catalunya (2025). *Enquesta d'usos lingüístics de la població 2023*. Generalitat de Catalunya. https://llengua.gencat.cat/web/.content/temes/dades_estudis/base-de-dades/documents/dades-eulp2023.pdf
- Dorransoro, M. (2025). *From «breathing spaces» to arnascuneak: The development of the concept in the Basque context* (I. bertsioa, aurreargitalpena). https://doi.org/10.31235/osf.io/akr4q_v1
- Fishman, J.A. (1991). *Reversing language shift: Theoretical and empirical foundations of assistance to threatened languages*. Multilingual Matters.
- Isasi Balanzategi, X., & Alvarez Enparantza, J. L. (1994). *Soziolinguistika matematikoa*. Udako Euskal Unibertsitatea. <https://www.ueu.eus/argitaletxea/liburuak/soziolinguistika-matematikoa>
- Lloyd Williams, S., ap Gruffydd, G. S., & Gruffydd Jones, E.H. (2024). The development of Welsh language education since devolution. *Welsh Journal of Education*, 26(2), 72–90. <https://doi.org/10.16922/wje.26.2.6eng>
- Llywodraeth Cymru. (2017, uztailaren 25). *Adroddiad technegol: Amcanestyniad a thaflwybr nifer y siaradwyr Cymraeg tair oed a throsodd, 2011–2050*. <https://www.llyw.cymru/sites/default/files/publications/2018-12/amcangyfrifon-siaradwyr-cymraeg-2011-i-2050-adroddiad-technegol.pdf>
- Nelde, P., Strubell, M., & Williams, G. (1996). *Euromosaic: The production and reproduction of the minority language groups in the European Union*. European Commission.
- Soziolinguistika Klusterra. (2019). Arnascuneak. Etorkizuneko erronkak. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 110(1). <https://bat.soziolinguistika.eus/produktua/110-2019-1-arnascuneak-etorkizuneko-erronkak/>
- Thomas, N. (2010). *Bydoedd*. Tal-y-bont. Y Lolfa.

- Vila i Moreno, F.X., Massaguer Comes, M., & Flors-Mas, A. (2023). *Les dinàmiques del català entre els joves: Reptes, principis i arguments per a l'acció*. Generalitat de Catalunya, Departament de Cultura, Secretaria de Política Lingüística. <https://llengua.gencat.cat/web/.content/documents/publicacions/btpl/arxiu/32-btpl-dinamiques-catala-joves.pdf>
- Welsh Government. (2017). *Cymraeg 2050: A million Welsh speakers*. <https://www.gov.wales/sites/default/files/publications/2018-12/cymraeg-2050-welsh-language-strategy.pdf>
- Welsh Government. (2022a, urriaren 11). *Welsh Language Communities Housing Plan*. <https://www.gov.wales/welsh-language-communities-housing-plan.html>
- Welsh Government. (2022b, abenduaren 6a). *Welsh language in Wales (Census 2021)*. <https://www.gov.wales/welsh-language-wales-census-2021.html>
- Welsh Government. (2025a, martxoaren 26a). *Cymraeg 2050: Welsh language strategy action plan 2025 to 2026*. <https://www.gov.wales/cymraeg-2050-welsh-language-strategy-action-plan-2025-2026>
- Welsh Government. (2025b, maiatzaren 29a). *Welsh Government response to the report of the Commission for Welsh-speaking Communities: Empowering communities, strengthening the Welsh language*. <https://www.gov.wales/sites/default/files/publications/2025-11/empowering-communities-strengthening-the-welsh-language-welsh-government-response.pdf>
- Welsh Language and Education (Wales) Act 2025, asc 2. <https://www.legislation.gov.uk/asc/2025/2/enacted>

5. Continuum and Co-dependence: the inter-related dynamics of higher, mid and lower-density Welsh-speaking communities

Elin Haf Gruffydd Jones (University of Wales Trinity Saint David – ELEN)

Abstract: The article reflects on recent developments in Wales with regard to policy in this field, and particularly the work of the Commission for Welsh-Speaking Communities. It also draws on the contribution of Prosiect BRO: Comprehensive Sociolinguistic Survey of Contemporary Welsh-speaking Communities¹ to the Commission's first and second phases (2022-2024, 2024-2026).

